

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

8180

100/2008 FORU DEKRETUA, azaroaren 25eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, ezabatu egiten da Jokoaren gaineko Zerga (makinak edo aparatu automatikoak) ordaintzeko ziurtagiriaren eredu bereizgarria.

Ekainaren 16ko 58/1998 Foru Dekretuaren bidez, Jokoaren gaineko Zerga ordaintzeko ziurtagiriaren eredu bereizgarria sortu zen.

Jokoaren gaineko Zerga makinak edo aparatu automatikoak ustiatzearen kudeatzean lortutako esperientziari esker egiaztatu da alferrikoa dela makinari ordainketa egin dela ziurtatzen duen eredu bereizgarria itsastea, berori Jokoaren, makinaren eta aparatu automatikoen gaineko Zerga Tasako 045 eredu behar bezala aurkeztuta edo kasuan kasuko ordainagiriaren bidez egiazta baitaiteke.

Hori dela eta, zergaren kudeaketa errazte aldera, Jokoaren gaineko Zerga ordaindu dela egiaztatzeko eredu bereizgarria lortzeko beharra ezabatzen da.

Aldaketak 2008ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, beraz, Jokoaren, makinaren eta aparatu automatikoen gaineko Zergaren laugarren hiruhilabetekorako ez da beharrezkoa izango ordainketa egiaztatzeko eredu bereizgarria lortzea.

Gai honen inguruan Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena eta Kotsularako Batzordeak egin duena aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Martxoaren 30eko 425/1999 Foru Aginduaren bidez onartutako Jokoaren, makinaren eta aparatu automatikoen gaineko Zerga Tasako 045 eredu Arabako Foru Aldundian behar bezala aurkeztea edo, hala badagokio, ordainagiria aurkeztea nahikoa izango da zerga ordaindu dela egiaztatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Zerga ordaintzeko ziurtagiriaren eredu bereizgarria sortzeko ekainaren 16ko 58/1998 Foru Dekretua indargabetuta geratu da.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera izango du indarra eta 2008ko abenduaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 25a.– Diputatu nagusiordea, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

8180

DECRETO FORAL 100/2008, del Consejo de Diputados de 25 de noviembre, que suprime el modelo distintivo para la acreditación del pago del Tributo sobre el Juego, modalidad máquinas o aparatos automáticos.

Mediante Decreto Foral 58/1998, de 16 de junio, se creó el modelo distintivo para la acreditación del pago de la Tasa Fiscal sobre el Juego.

La experiencia acumulada en la gestión del Tributo sobre el Juego mediante la explotación de máquinas o aparatos automáticos ha permitido constatar lo redundante de la obligación de adherir a la máquina el distintivo acreditativo del pago del mismo, toda vez que tal acreditación se puede efectuar mediante el modelo 045 de Tasa Fiscal sobre el Juego, máquinas o aparatos automáticos debidamente presentado o, en su caso, mediante la correspondiente carta de pago.

Por ello, con el objetivo de simplificar y racionalizar la gestión del tributo, se procede a la supresión de la obligatoriedad de la obtención del modelo distintivo para la acreditación del pago del Tributo sobre el Juego.

Se ha previsto que la modificación normativa surta efectos desde el 1 de diciembre de 2008 de modo que para el cuarto trimestre del Tributo sobre el Juego, máquinas o aparatos automáticos no sea necesaria la obtención del modelo distintivo para la acreditación del pago del mismo.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo Único.

El modelo 045 de Tasa Fiscal sobre el Juego, máquinas o aparatos automáticos, aprobado mediante Orden Foral 425/1999, de 30 de marzo, debidamente presentado ante la Hacienda Foral de Álava, o en su caso, la presentación de la correspondiente carta de pago constituirá prueba suficiente del pago del citado tributo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto Foral 58/1998, de 16 de junio, que aprueba un nuevo modelo distintivo para la acreditación del pago de la Tasa Fiscal sobre el Juego.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, y surtirá efectos desde el 1 de diciembre de 2008.

Vitoria-Gasteiz, 25 de noviembre de 2008.– Teniente Diputado General, CLAUDIO RODRÍGUEZ GUTIÉRREZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.